

Ordizian, 2010ko urtarrilaren 29an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, EZ-OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Jose J. Lopez fernandez jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK

Iñigo Manrique Cia jauna	PP taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1.-Ordizia Lantzen SA Udal Elkarteari abala eman, SAN JUAN urbanizazio lanetarako LA CAIXArekin kontratatuko duen kreditu kontratua gauzatzeko.

..... 4. orr.

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8,10 h.

BUKAERA ORDUA: 8,25 h.



Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

1.-Ordizia Lantzen SA Udal Elkarteari abala eman, SAN JUAN urbanizazio lanetarako LA CAIXArekin kontratatuko duen kreditu kontratua gauzatzeko.

Proposamena

ORDIZIA LANTZEN SL udal elkarteak, Ordiziako Udalaren aginduz Ordiziako Arau Subsidiarioen "22-San Juan HIEren hirigintza obren exekuzioa kudeatzen ari da.

Aipatutako obren gastuei aurre egiteko, eta erakunde desberdinekin burututako prozedura bat finkatu ondoren, LA CAIXAK kontu-kreditu baten bidez udal elkarteak finantzatzeko du, 3.000.000 euroko zenbatekoarekin, bere titularra Ordizia Lantzen SA izango da, eta aipatutako operazioa burutzeko Ordiziako Udalari abal bat eskatu zaio.

Toki Arautegiaren Oinarrietako Lege arautzailearen 22.2. m) artikulua araberak Osoko Bilkurari dagokio kreditu operazioen kontratazioa, urteko ekitaldi ekonomikoaren barruan aurrekontuaren ohiko baliabideen %10a gainditzeko duenean, eta osoko bilkurako kide kopuru legalaren gehiengo absolutuz onartu behar da, aipatutako legearen 47 artikulua zehaztutakoaren arabera.

Hori ikusirik, honakoa proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Ordizia Lantzen SA udal Elkarteari LA CAIXArekin kontratatutako kreditu kontuan "22-SAN JUAN" HIEren urbanizazioko obrak finantzatzeko abala ematea honako ezaugarriekin:

- Zenbatekoa: 3.000.000.€
- Interes tipoa: EURIBORa 3 hilabetetara + %1,24
- Hiruhileko azterketa
- Karguaren aldizkakotasuna: hiruhilekoa
- Irekitzeko komisioa: 0%
- Aztertze komisioa: 0%
- Erabilgarritasun ezaren komisioa: 0%

Proposamena onartzeko gehiengoa: Gehiengoa

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Jakinarazi du presazkoa izan dela ez-ohiko osoko bilkurako deialdia egitea, Ordizia Lantzen SAK La Caixarekin kreditu operazioa itxi behar baitzuen San Juan urbanizazio lanekin jarraitu ahal izateko.

Leunda jaunak:

Abstenitu egingo dela esan du, Udalak sustatutako dituen BOEk alokairu erregimenekoak izan beharko lirakeela uste baitu, gaur egungo beharretara hobeto egokitzen delako.

Hasteko, zenbait errenta, esleipen unean baldintza ekonomikoetan sartuko lirateke, baina denbora gutxian egoera hori hobetu dakieke eta edozein etxebizitza erostera iris daitezke, eta egoera hori saihas daiteke. Bestalde, maila baxuko beste errenta batzuetakoak alokairuko erregimenean sar daitezke, ez baitute jabetza bat lortzeko nahikoa dirurik.

Hori dela eta ez dago proiektuarekin ados eta abstenitu egingo da.

Alkate jauna.

Bere garaian etxebizitzaren merkatu prezioa ahalik eta gehien erregulatzeko Ordizia Lantzen elkartearen sortu zela azaldu du, eta horiek horrela, elkarte honek sustatu dituen etxebizitzak Babes Ofizialeko Etxebizitzak edo erregimen askekoak izan dira baina merkatukoak baino prezio baxuagoekin.

Aralarrek egin duen eskaerari dagokionez, alegia, alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruzkoa, erantzun dio Udalak ezin duela horrek dakarrena bere gain hartu. Eusko Jaurlaritzak berak ezin omen du bere gain hartu.

Jakinarazi dio (Florea) inguruan Eusko Jaurlaritzak sustatuko dituen etxebizitzetan EJRi eskatu diola batzuk alokairukoak izan daitezela. Konpromiso hau ia itxita dago. Etxebizitza tasatutako prezioan izan beharko lukeela uste du eta BOE alokairukoak, baina horrek ia ezinezkoa den ahalegina suposatzen du.

Leunda jaunak:

Azaldu du, behintzat etxebizitzaren zati batekin ahalegina egin beharko litzatekeela.

Dubreuil jauna

BOEko alokairuko erregimenarekin guztiz ados dago, guztiz egokia dela uste du, baina horretarako Lurzoruen Lege erregimena eta udal finantzioazioa ere aldatu beharko lirateke.

Florea inguruko alokairuko etxebizitza gehiago lortzeko ahalegina egin beharko litzatekeela uste du.

Gaur hartu beharreko erabakiari dagokionez, Udalaren abalari Ordizia Lantzen SA babesten duela uste du eta ez dela proiektua bera kontuan hartzen.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (IU-EB/ARALAR)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak osoko bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta bik behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

